

**ERABAKIA, 2017ko uztailaren 7koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTRPOLOGIA FAKULTATERako "IKASTEGIKO TEKNIKARIA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO ESLEITZEN DA, LEHENENGO ESLEIPENDUNAK ESLEIPENARI UKO EGIN DIOLAKO.**

### **GERTAKARIAK**

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2017ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2017ko maiatzaren 17ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

Hirugarrena.- Gerentzia honek 2017ko maiatzaren 25eko Erabakiaren bidez, deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratu ondoren, lanpostua, 2017ko maiatzaren 29ko ondorio datarekin, zerbitzu eginkizunetan MIREN IDOIA IRIONDO MADARIAGA funtzionarioari aldi baterako esleitzea erabaki zuen.

Laugarrena.- 2017ko ekainaren 30ean goian aipatzen den funtzionarioak idazkiaren bidez esleipenari uko egiten dio.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea.
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen deialdiaren 2017ko apirilaren 3ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra:

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko errektorearen erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez

berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAA).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du 3.3. artikuluan: "Akordio honetan araututako prozeduran salbuespenak egin ahal izango dira. Horretarako, beharrezkoa izango da interesa duen zerbitzuak proposamena egitea, eragindako pertsonak hura onartzea eta Pertsonaleko Gerenteordetzak baimena ematea:

3.3.2. Zerbitzu betekizunetarako izendatuak uko egin dionean izendapenari, betiere, hiru hilabete baino gutxiago igaro badira akordio honetako prozedurari jarraituz deitutako zerbitzu betekizunak ebatzi direnetik. Horrelakoetan, zuzenean, prozeduran puntuazio handiena lortu duen hurrengo izangaiari egin dakiok izendapena."

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

### ERABAKI DU:

Lehenengoa.- MIREN IDOIA IRIONDO MADARIAGAREN I. eranskinean adierazitako lanpostuan zerbitzu betekizunari uko egitea berrestea. Uko egitearen ondorio data 2017ko uztailaren 9koa izango delarik.

Bigarrena.- HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTRROPOLOGIA FAKULTATERako "Ikastegiko teknikaria" hautatutako funtzionarioa bitarteko funtzionarioa izendatzea, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Hirugarrena.- Izendapena 2017ko uztailaren 10eko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Bosgarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzu Buruei edo Administrazioarenei eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Seigarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2017ko uztailaren 7an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko EHAA).

GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteche

## **I. ERANSKINA**

**Esleipenduna:** MERCEDES PASTORA TORRES GÓMEZ DE CADIZ AGUILERA

**Ianpostua:** Ikastegiko teknikaria

**Lanaldia:** Arautua

**Erref.:** F 1149

**Zenbatgarrena:** 7

**Taldea:** A/B

**Eskala edo kidegoa:** Gestioko teknikaria / Unibertsitate kudeaketa

**Maila:** 23

**Hizkuntza eskakizuna:** 3;2009/09/30

**Langunea:** HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTRROPOLOGIA FAKULTATEA

**Campus:** GIPUZKOA

**BE:**

**Ondorioetarako data:** 2017ko uztailaren 10a